

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2011 IRA 26		
SALBUZTA	TELEFONA	
2069		

EAJ-PNVren udal taldeak Deba Garaiko Ospitale Berriaren proiektuan murrizketak ematearen aurka aurkezten duen mozioa.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako arduradunek 2006ko irailaren 28an aurkeztu zieten Deba Garaiko Ospitale Berriaren proiektua, hala nola Ospitaleko langile eta Debagoienako alkateei. Baita herritarrei ere, azken hauei prentsa bidez prentsa bidez.

Orain, ospitale berria amaitzear dagoenean eta bere irekitzea 2012ko urtarrilerako aurreikusita egonda ere, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako arduradunek inorekin ezer adostu gabe hasierako egitasmoa murriztea erabaki dutela jakin dugu, Ospitale berriaren hobekuntza nabarmenak izan zitezkeen zenbait zerbitzu kenduz.

Hauek dira murrizketarik nagusienak:

- **Oheak:** hasierako proiektuan aurreikusitako 120etatik 80 bakarrik ipiniko dira. Hau da, kolpetik %33 gutxiago.
- **Eremu Semikritikoa** (5 ohe). Proiektuak orain atzera bota duten unitate berri hau eratzea aurreikusten zuen. Unitate berri honek, besteak beste, hipertentsioa duten eta diabetikoak diren pertsoneri, edo ebakuntzan zailtasunen bat izan duten pazienteei ebakuntza ondoan zainketa berezien aukera eskainiko lieke. Aukera hori kentzean, arriskutsua izanik ez dute Arrasaten ebakuntzarik egiterik izango, eta beste behin ere pazienteak beste Ospitaleetara bideratu beharko dituzte (Gasteiz ...).
- **Espezialistak:** Urologia, Endokrinologia, Neumologia eta Neurologia gehitzea aurreikusita dago, hala ere ez da ziurtatzen hasierako egitasmoaren arabera egingo denik.

Debagoienako herritarrok urteak daramazkigu garai berriei egokitutako Ospitale bat eskatuz, zerbitzu osoagoekin, eta batipat Gasteizerako edo Donostiarako lekualdatzeak ekidindo dituen. Pazienteen etengabeko lekualdatzeak ekidin asmoz zerbitzu sanitarioen gerturatzea eskatzen dugu.

Ezin dugu utzi Debagoienan hain beharrezkoa den, eta adostuta eta alde guztiei jakinarazita dagoen proiektu batek murrizketa hauek izatea, eta hare gutxiago inorekin ezer adostu ez dagoenean. Ez dugu zalantzan jartzen langile sanitarioen maila, baina kudeatzaileei ezin diegu horrelakorik egiten utzi.

Ondorioz, Oñatiko Udal Bilkurari honako hitzarmen hau adostea eskatzen diogu:

1. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eta Osakidetzari Deba Garaiko Ospitalearen hasierako egitasmoa birjarzeko, ez babesteko krisi ekonomikoan eta proiektu hau beste makro-proiektu guztien gaitetik lehenesteko premiatzea. Horretarako, kontutan izatekoa da hau onartutako proiektu bat zela, eraikinetan egin beharreko inbertsioak eginda daudela, eta Debagoienako herritarrei Ospitale bat eta planifikatutako helmena duten zerbitzu sanitarioak zor zaizkiela.
2. Hitzarmen hau Gipuzkoako Lurraldeko Batzar Nagusietara eta Debagoienako Mankomunitatera igortzea erreklamazio honetara atxiki dadin eta Euskadiko zerbitzu sanitariotako agintari arduradunei hel dakien.
3. Honela, hitzarmen hau Osasun Sailburuari, Osakidetzaren Zuzendari Nagusiari eta Deba Garaiko Ospitalearen kudeatzaile arduradunei igortzea.

Oñati, 2011ko irailaren 26a

